

GIG 20

ITZURUNTXIKIKO FLYSCH EOZENOKO TURBIDITAK

BALIO INTRINTSEKOA: **3,25**BALIAGARRITASUN-MAILA: **3,50**KALTEBERATASUN-MAILA: **1**

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Paleozoaren eta Eozenoaren arteko mugatik ipar-ekialdera eta Marianton puntaraino, 300 metroko itsaslabar ikusgarria dago, oineko segida eozenoa duena (Ypresiarrekoa). Tupez eta kareharri tupatsuz osaturiko segida bat da, oro har, eta turbidita siliziklastiko pila bat ditu tartekatuta. Segidan gora egin ahala, hots, ipar-ekialderantz egin ahala, gero eta turbidita gehiago daude eta gero eta lodiagoak dira. Ekialdean, Pirinio mendiak altxatzeko prozesuak ezegonkortasun tektonikoa eragin zuen, eta ezegonkortasun horren ondorioz daude turbiditak segida horretan. Marianton inguruan badira metrotik gorako lodierako turbidita batzuk ere.

Marianton puntan, ur-lasterraren marken adibide bikainak ikus daitezke (flute-motakoak), eta marka horiek garbi erakusten dituzte geruza hauen eragile izan ziren uhertasun-lasterren mendebalderantzko mugimenduak. Esan beharra dago ondo kontserbatuta daudela turbiditen barne-egitura bereizgarriak; adibidez, Bouma sekuentzia eta zenbait xafladura-mota. Azpimarratzekoa da Itzuruntxikiren erdialdean dagoen geruza bat, 70 cm inguruko lodierakoa eta xafladura konbolutu benetan ikusgarria duena; izan ere, hareharria xafla kurbatuak aprobetxatuz higatu da, eta hala, forma biribildu oso erakargarriak sortu dira.

NOLA BERTARATU

Azaleramenduaren lehenengo zatia Itzurungo ipar-ekialdera joateko bidetik ikus daiteke. Azalera-mendurik bitxiak ikusi nahi izanez gero, Itzuruntxikira igaro behar da; baina ura behe samarrean dagoenean soilik joan daiteke bertara, eta arriskutsu samarra da.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ.



Itzurungo azaleramendu eozenoaren ikuspegi orokorra.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 560084 m / Y= 4794612 m / Alt.= 3 m



Marianton puntako fluteak, gertutik ikusita.